



## GOIAZ! 2014

Lanbide Heziketaren Azkoa  
Martxoak 26 eta 27an;  
Kulturaren, Arrasaten.



NiNeu / YoMism@ BideoCV  
lehiaketa antolatdu dugu.

Pentsatu, grabatu eta bidali  
zure bideo curriculum-a!

Informazio guztia:  
[www.debagoiena.net](http://www.debagoiena.net)



[www.facebook.com/goiazdebagoiena](https://www.facebook.com/goiazdebagoiena)



[www.twitter.com/goiazdebagoiena](https://www.twitter.com/goiazdebagoiena)



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Berrikuntza, Landa Garapene  
eta Turismo Departamentua  
Departamento de Innovación,  
Desarrollo Rural y Turismo

Gipuzkoa  
BERRIA

## "Lanbide Heziketan praktikari ematen zaio garrantzia gehien bat"

**E**ider Roak Eraikuntza Proiektuak  
Goi Mailako heziketa zikloa  
burutu zuen Arizmendi Ikas-  
tolan eta alor hori gustuko zuela iku-  
sita, unibertsitatean Arkitektura  
ikasketak bukatu ditu. Duela gutxi  
Arizmendira itzuli da, Enplegu Berdea  
programan parte hartzera.

### Zergatik Lanbide Heziketa?

Eraikuntza arloa gustatzen zait, batez  
ere interiorismo aldetik, eraikinen barrual-  
deak eta. Unibertsitaterako sarbide  
froga batzuk egon ziren eta ezin izan  
nuen aurrera jarraitu. Orientatzaileek  
heziketa ziklo honi buruz hitz egin zida-  
ten; bi urtetan gai teoriko-praktikoak  
landuz, epe motzean ikusiko nuela nire  
mundua ote zen ala ez. Bide hori auke-  
ratu nuen.

### Zer azpimarratuko zenuke Lanbide Heziketatik?

Praktikotasuna. Eta teoria jorratzean  
ere, beti praktikan aurkituko duzunari  
begira lantzen da.

### Zer gustatu zaizu gehien?

Marrazketa. Asko praktikatu dugu, gai-  
nera, Autocad-en eta.

### Lana bilatzea, laneratzea, erraza izan al da Lanbide Heziketarekin?

Ez naiz lan bila hasi, baina ez naiz gera-  
tu. Lanbide Heziketatik unibertsitatera;  
karrera amaitu eta hemen lan aukera  
handirik ez zegoela ikusita proiektua  
egitera kanpora joan nintzen, lan egin



eta ingelesa ikastera. Proiektuaren aur-  
kezpena pixka bat atzeratu nuen, eta  
2013ko urtarrilean aurkeztu nuen. Ondo-  
ren, Arizmendi Ikastolan Enplegu Berdea  
programan sartu nintzen.

### Zein da unibertsitate ikasketen eta Lanbide Heziketaren arteko aldea?

Unibertsitatean teoria asko ematen da;  
matematika, fisika, kimika, egiturak... Egia  
da gero eraikuntza alorrean sartzen dela.  
Lanbide Heziketa praktikoa da, eta zure  
lana benetan zein izango den ikusten duzu.  
Gainera, praktikak curriculumean sartu  
ahal izateak bere pisua du.

### Lanbide Heziketa gomendatuko al zenuke?

Bai, batez ere zer ikasi nahi duen ziur ez  
dakienari. Eramangarria da, 2 urtetan  
egiten baituzu eta oso praktikoa da. Lana  
topatzeko ere praktikotasunak errazta-  
sunak ematen eta beste formazio bate-  
rako bideak irekitzen dizkizu.

## "Praktikak du garrantzia hemen, tailerlean ordu asko ematen ditugu"

**I**ker Arkauz ofñatiarra Mantentze-lan Eletromekanikoen erdi mailako heziketa zikloa ikasten ari da Zuazola-Larraña Institutuan. Bigarren maila egiten ari da, eta laster praktikak egitera joango da enpresa batera.

### Nola heldu zara Lanbide Heziketan ikasketak egitera?

DBH ikasten ari nintzen, eta hura utzi eta Lanbide Hastapenera joan nintzen. Lanbide Hastapenean Elektrizitateko espezialitatea egin nuen. Bitartean, DBH-ko titulua ateratzeko eskolak jasotzeko aukera genuen; horrela, bi urtean, elektrizitatearen arlora hurbildu eta DBHko titulua atera nuen. Horrek aukera eman zidan heziketa ziklo baten hasteko.

### Zergatik erabaki zenuen elektrizitatearen arloan segitzea?

Mantenua asko gustatu izan zait beti, baita etxean aitari ere. Arlo hori horren gustuko izanda, eta gainera herrian bertan, mantentze-lanak egitea erabaki nuen.

### Beraz, ezaguna zenuen aurretik Lanbide Heziketa, ezta?

Bai, hemen ibilitako jendea ezagutzen nuen, eta haiek gomendatu zidaten. Etxean ere ideia ona iruditu zitzaien.

### Aurten bigarren mailan egonda, ze asmo duzu bukatzen duzunerako?

Goi mailako zikloetarako sarbide proba prestatzen ari naiz arratsaldeetan, hemen bertan. Maiatzean da azterketa, eta, gaituz gero, Bergaran edo Arrasaten segiko dut goi mailako ziklo batekin.

### Zer azpimarratuko zenuke Lanbide Heziketaz?



Teoriari ematen dioten pisua batxilergoan ematen diotenearekin konparatuta askoz txikiagoa da. Praktikak du garrantzia hemen; izan ere, tailerlean ordu asko ematen ditugu.

### Enpresekin izan duzu harremanik?

Bai. Lanbide Hastapenean nenbilela Debagoieneko Ospitalean egin nituen praktikak eta oso gustura ibili nintzen. Eta joan den udan ere lan egin nuen, Garain. Orain, martxoan, hiru hilabeteko praktikak izango ditugu.

### Zein izango litzateke zure gustuko lana?

Enpresa batean mantentze-lanak egitea edota eskolako mantenuaz arduratzea izango litzateke nire gustuko lan bat.



## GOIAZ! 2014

Lanbide Heziketaren Azoka  
Martxoak 26 eta 27an;  
Kulturaren, Arrasaten.



NiNeu / YoMism@ BideoCV  
lehiaketa antolatdu dugu.

Pentsatu, grabatu eta bidali  
zure bideo curriculum-a!

Informazio guztia:  
[www.debagoiena.net](http://www.debagoiena.net)



[www.facebook.com/goiazdebagoiena](https://www.facebook.com/goiazdebagoiena)



[www.twitter.com/goiazdebagoiena](https://www.twitter.com/goiazdebagoiena)



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Berrikuntza, Landa Garapenean  
eta Turismo Departamentua  
Departamento de Innovación,  
Desarrollo Rural y Turismo

Gipuzkoa  
BERRIA

**GOIAZ!**

Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

**GOIAZ! 2014**

Lanbide Heziketaren Azoka  
Martxoak 26 eta 27an;  
Kulturaten, Arrasaten.



NiNeu / YoMism@ BideoCV  
lehiaketa antolatuta dugu.

Pentsatu, grabatu eta bidali  
zure bideo curriculum-a!

Informazio guztia:  
[www.debagoiena.net](http://www.debagoiena.net)



[www.facebook.com/goiazdebagoiena](http://www.facebook.com/goiazdebagoiena)

[www.twitter.com/goiazdebagoiena](http://www.twitter.com/goiazdebagoiena)



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Gobierno Vasco, Leuzi Enpresaren  
eta Turismoaren Departamentua

Gipuzkoa  
4K11T2014

*"Ez dut inoiz arazorik izan lanik aurkitzeko,  
hamaika tokitan ibili naz jada"*

**Z**uzendaritza Idazkaritzan goi mailako heziketa zikloko ikaslea da Maitane Lasa. Ez da berria, ordea, Enpresagintza fakultatean. Aurretik Administrazio eta Finantzak ere ikasi zuen. Berrito ikasten hasi eta lana aurkitu du. Bekaduna da unibertsitateko idazkaritza akademikoan. Ikasten duen bitartean lana egitea erraza dela dio.

**Zerk bultzatu zintuen Lanbide Heziketa ikastera?**

Lan munduan sartzeko aukera ona eta azkarra izateaz gain, irteera asko ditu. Hasieratik nuen lan egiteko interesa eta aukera zuzenena zela iruditu zitzaidan.

**Nola ezagutu zenuen LH?**

Batxilergo humanistikoa ikasi nuen, eta bigarren mailan ezagutu nuen, orientatzailearen eskutik. Berez ikasketetan arazoak dituzten ikasleei gomendatzen zaie heziketa mota hau, baina aukera on eta azkarra da lan mundura zuzenean sartzeko. Nire kasuan ikasketak bukatu nituenetik ez dut lan faltarik izan.

**Inguruko laguntza jaso al zenuen LH aukeratzeko orduan?**

Bai, gurasoek asko lagundu ninduten, eta oso garrantzitsua izan zen hori niretzat. Lagunak ere badituzte ikasketak hauetan dabiltzanak, eta eurek ere animatu ninduten.

**Ezagunei edo lagunei gomendatuko zenieke LH?**



Bai horixe. Badituzte bi lagun erdi mailako bi ziklo ikasi dituztenak eta gaur egun biak lanpostu finkoa dute. Unibertsitatean baino denbora gutxiago pasatzen dugu ikasten eta lanerako aukera berdina edo gehiago ditugu.

**Lanera begira, onurarik izan al du Lanbide Heziketako ikasketak egin izana? Erraza al da lana bilatzea?**

Orain berriz hasi naiz ikasten, baina ez dut inoiz arazorik izan lanik aurkitzeko. Hamaika tokitan ibili naiz jada, unibertsitatean, enpresetan... Hori bai, praktikak norberak hautatu ditzan gomendatuko nuke. Oso garrantzitsua da gustuko leku batean aritzea eta ikasketak aukera aprobetxatzea.

**Ikasketetan zer izan da gogorra?**

Ikasketak aukeratzeko. Gerora nire gus-tuko gaitan sakontzen nuenez, erraza izan da ikasketak aurrera eramatea. Orain ikasten nabilen bigarren ziklo honetan hainbat materia baliozkotuta ditut aurreko ikasketak direla-eta. Beraz, ez zait gogorra egiten ikasten aritzea.

# GOIAZ!

Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

## GOIAZ! 2014

Lanbide Heziketaren Azoka  
Martxoak 26 eta 27an;  
Kulturaren, Arrasaten.



NiNeu / YoMism@ BideoCV  
lehiaketa antolatatu dugu.

Pentsatu, grabatu eta bidali  
zure bideo curriculum-a!

Informazio guztia:  
[www.debagoiena.net](http://www.debagoiena.net)



[www.facebook.com/golazdebagoiena](http://www.facebook.com/golazdebagoiena)



[www.twitter.com/golazdebagoiena](http://www.twitter.com/golazdebagoiena)



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Berrikantzean, Lanbide Heziketaren  
eta Berrikantzearen Departamentua

Gipuzkoa  
HEZIKETA

## LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

### "Ikasketen ardatza praktika denez, ikasleok lan mundurako prestatuago gaude"

**I**ngeniari tekniko topografiko bezala lan egin ondoren, David Rodriguez langabezia geratu eta berriro ikasten hastea erabaki du. Bergararra da, eta Diseinua Fabrikazio Mekanikoan zikloan dabil Miguel Altuna Institutuan. Ikasketa hauekin lanpostu bat aurkitzea errazago izango denaren esperantza dauka.

**Zerk bultzatu zaitu Lanbide Heziketa ikastera?**

Orain urte bat lanik gabe geratu nintzen, eta ordutik, ez dut nire perfilarekin bat datorren lanik aurkitu. Autonomo izaten ere saiatu nintzen, baina diru laguntza eskasak medio, berriro ikasten hastea erabaki nuen.

**Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa?**

Aurretik marrazketarekin zerikusia duten ikastaro batzuk egin nituen hemen. Lagun eta familiakoek ere hemen ikasi dute, eta beraien esperientzia onaren berri izan ostean, hona etortzea erabaki nuen.

**Unibertsitate eta Lanbide Heziketaren artean alde handia dago?**

Teoriari garrantzia gutxiago ematen diote hemen, praktikoagoa da eta lan mundura zuzenduagoa dago. Unibertsitatearekin alderatuz gero, hemen gutxiago ikasten da, gogorragoa da unibertsitatea, baina horrek ez du esan nahi bata bestea baino hobea denik.

**Lanbide Heziketa Lan mundura enfortatuagoa dago?**

Bai. Ikasketak amaitzetik lanean hasi arteko denbora tartea motzagoa da hemen.



Hemen praktikari garrantzi gehiago ematen zaio, eta ikasleok, lan mundurako prestatuago gaude. Badut hemen ikasi eta lana aurkitu zuen lagun eta familiar-tekorik, horrek bultzatu nau, beste arrazoi batzuekin batera hona etortzera.

**Gustura zabilta zure ikastetan?**

Egia esan pozik nago. Aurreko ikasketekin zer ikusia ez duen zerbaitekin hastea erabaki dut, ahalik eta ate gehien zabalik izateko. Lan munduan ezin zara gelditu. Hasieran, beldur apur batekin hasi nintzen baina gustura nabil eta gomen datu egingo nuke gainera.

**Lanbide Heziketak lanerako ate gehiago irekitzen al ditu?**

Eraikuntzaren munduak bizi duen egoera ikusita, eta hemen lan egiteko asmoa dudala kontuan izanik, bai, hala uste dut. Oraingo egoeran egoteko nahiago dut ikasi eta aurrera egin. Atzerirra joatea ez dago nire planen barruan.

**GOIAZ!**

Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

**GOIAZ! 2014**

Lanbide Heziketaren Azoka

Martxoak 26 eta 27an;

Kulturaten, Arrasaten.

NiNeu / YoMism@ BideoCV  
lehiaketa antolatut dugu.Pentsatu, grabatu eta bidali  
zure bideo curriculum-a!Informazio guztia:  
[www.debagoiena.net](http://www.debagoiena.net)[www.facebook.com/goiazdebagoiena](http://www.facebook.com/goiazdebagoiena)[www.twitter.com/goiazdebagoiena](http://www.twitter.com/goiazdebagoiena)

DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Euzkuntzako, Lanbide Garapenerako  
eta Turismoaren DepartamentuaGipuzkoa  
ekintzailea

## "Makina erabiltzen eta muntatzen, biak ikasi ditugu guk"

Imanol Gonzalez eibartarrak Inge-niarritza Mekanikoa ikasten du Mondragon Unibertsitatean. Aurretik baina, fabrikazio mekanikoko diseinuko goi maila ikasi zuen. Robotika lehiaketa bateko partaide ere izan zen Lanbide Heziketa ikasten zuen bitartean.

### Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa eta zer aportatu dizu?

Makinen artean ikatea eta esperientzia hartzea izan zen onuragarriena, egiten ikatea. Selektibitatea egin nuen, baina nota ez zen behar bezain ona unibertsitatera saltoa emateko, beraz Lanbide Heziketara jo nuen.

Bidea luzeagoa izan da, baina nire helburua gradu mailako ikasketetara heldzea zen.

### 'Robotek' proiektuko partaide ere izan zinen. Zer nolako esperientzia izan zen hori?

Aberasgarria. Denbora asko pasa genuen guztiok batera eta horrek asko batu gintuen. Ikasi ere asko ikasi genuen, izan ere ikasle eta irakaslez zegoen osatuta taldea eta AEBtara ere joan ginen proiektua aurkeztera.

Aurten beste talde bat ere badabil nik egin nuen proiektu berdinean lanean.

### Zein dira zure ustez, unibertsitate eta Lanbide Heziketa ikasketen arteko ezberdintasunak?

Ikerketa aldetik, unibertsitatean gehiago sakontzen da, baina praktikak falta dira. Lanbide Heziketaren ondoren badakizu makina erabiltzen baina ez



makina muntatzen, esaterako, eta hori da graduan ikasten duguna. Gainera, orain, eguneroko lana egin behar dut haria ez galtzeko.

### Lanbide Heziketa eta enpresen arteko harremana estua da. Nolatan erabaki zenuen ikasten jarraitzea?

Bizi dugun krisi egoerak eraman nau ikasten jarraitzea. Banuen lana enpresa batean, baina nire formakuntzan jarraitzea erabaki nuen, etorkizunera begira. Iruditzen zitzaidan ez zela nahikoa goi heziketa tituluarekin. Behar bada orain lanean egongo nintzateke, baina nork daki lau urte barru non naogen.

Bada ez bada ikasten jarraituko dut, lan merkatuan aukera zabalagoa izate aldera.

# GOIAZ!

Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

## GOIAZ! 2014

Lanbide Heziketaren Azoka  
Martxoak 26 eta 27an;  
Kulturaten, Arrasaten.

Prestakuntza arloko eskaintza  
Enplegu zerbitzuak  
Ekintzaileentzat zerbitzuak  
Tailerrak eta hitzaldiak  
Aparatuak eta esperimenduak



[www.facebook.com/goiazdebagoiena](http://www.facebook.com/goiazdebagoiena)



[www.twitter.com/goiazdebagoiena](http://www.twitter.com/goiazdebagoiena)



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Berrikuntza, Lanbide Heziketa  
eta Turismoaren Departamentua

Gipuzkoa  
ekintzailea

## "Ikasle eta enpresen arteko harremanari esker, lan mundua gertuago dugu"

**B**elen Gonzalez Ondarrutarrak Gizarte Integrazioa ikasten du bergarako Mariaren Lagundia ikastolan. Aurretik, erizain laguntzaile ikasketak egin zituen Ondarroan. Oposaketak atera eta lan egin eta gero, ikasten jarraitu nahi du, bere helburua unibertsitatera heltzea da.

### Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa?

DBHko titulua ateratzean ezagutu nuen. Erizaintzak betidanik erakarri nau eta titulua eskuratu ostean, praktikei esker, lana lortu nuen. Oposaketak ere egin nituen, baina langabezian gertatu eta ikasten jarraitzea erabaki dut.

### Zure inguruan ongi jaso zuten Lanbide Heziketa ikasteko erabakiak?

Gazte hasi nintzen lanean, eta beti nahi izan dut ikasteko gogoia. Lagunen batek erotuta ote nengoen galdetu zidan, baina oro har ikastera animatu ninduten. Gustura nabil, eta erizain laguntzaile zikloaren ondoren, erizaintza ikatea da nire helburua.

### Erdi mailako zikloaren eta goi mailako zikloaren arteko ezberdintasunik bada- go? Zer aldatuko zenuke?

Ez dago alde handirik, antzekoak dira biek baina goi maila teoriokogoa da. Nire kasuan informatika klaseak falta zaizkit eta derri- gorrezko asistentziak asko mugatzen nau. Bi semealaba ditut eta ezbarharren bat gertatu gero, ez da erraza izaten. Ulertzen dut gazteekiko horelako neurriak hartzea, baina niretzat oztopo bat besterik ez da.



### Zein izan dira Lanbide Heziketaren onurak eta alde txarrak?

Aspektu positiboak baino ez zaizkit burur- ratzen. Ikasle eta enpresen arteko harre- manari esker, lan mundua gertuago dugu, horrek praktiketako exijentzia maila ere jasotzen du. Praktiketaren Mendaroko Ospitalean egindako lanari esker, lortu nuen lana. Gizarte Integrazioan kasu praktikoen falta sumatzen dut, baina sormenari esker egiten ditugu ariketa asko, eta horrela ere asko ikasten da.

### Etorkizunean non ikusten duzu zure burua?

Unibertsitaterako sarbide frogia prestatu eta erizaina izatea da nire helburua. Hurrengo bi urteetan gizarte integratzaile- ia izateko ikasiko dut, arlo honetan ere gaixoei laguntzeko. Epe laburrean baina unibertsitatera saltoa eman nahi dut. Nire ametsa, bai profesionalki baita pertso- nalki ere erizaina izatea da.



## GOIAZ! 2014

Lanbide Heziketaren Azoka

Martxoak 26 eta 27an;

Kulturaren, Arrasaten.



[www.facebook.com/goiazdebagoiena](http://www.facebook.com/goiazdebagoiena)



[www.twitter.com/goiazdebagoiena](http://www.twitter.com/goiazdebagoiena)



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Berrikuntza, Lanbide Heziketa  
eta Turismoaren Departamentua

Gipuzkoa  
ekintzailea

## "Profesionalki, lan mundura itzultzeko prestatuago nago"

**E**raikuntzarekin lotuta dauden ikasketak egiten dihardu Iban Elortondo aretxabaletarrak. Langabezian geratu ondoren berriro ikastea erabaki zuen eta goi mailako heziketa zikloa aukeratu zuen horretarako. Orain, praktikak eta proiektuak partekatzen dabil.

**Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa eta zerk bultzatu zintuen mota horretako ikasketak egitera?**

Langabezian geratu nintzen eta lanpostu bat aurkitzea baino errazagoa iruditu zitzaidan ikasten hastea berriro. Egin nuen lehen gauza Aretxabaletako Institutura joatea izan zen. Bertan informazioa eskatu, eta hemen jarraitzen dut. Gainera, familiak asko animatu nau hasieratik eta azterketa garaian, batez ere, asko laguntzen didate. Asko eskertzen da, gainera.

**Zer eman dizu Lanbide Heziketak?**

Ikasten hasteara erroka bat izan zen. Denbora luzea neraman ikasi gabe, eta beldur nintzen. Emaizta onak atara ditut eta oso pozik nago. Gainera, jende jatorra ezagutzeko ere balio izan dit. Profesionalki, lan mundura itzultzeko prestatuago nago. Prestakuntza izatea ezinbestekoa da gaur egun, eta ikasketak bukatutakoan prestatuago gongo naiz, zuri.

**Gomendatuko al zenuke Lanbide Heziketa?**

Bai. Ikaste garaia ez da luzea, epe laburrean bukatzen da, eta, gero enpresa-



rekin harremana zuzena denez, praktikak bertan egitea onuragarria da. Benetako enpresa bat ezagutzeko aukera dago.

**Ikasteko garaian, zer egiten zaizu errazena eta zer zailena?**

Zailena hastea izan zen. Denbora luze ikasi gabe egon ondoren, zalantzak nituen ikasketak aurrera eramateko gai izango nintzen edo ez. Denborak aurrera egin ahala nire buruarekiko konfiantzak gora egin zuen eta gustua hartu nion ikasteari. Eta gaur egun ere gustura jarraitzen dut nire prestakuntza zabaltzen.